

EGUNEKO DIANAK

Abesbatzen Elkartea



Gaur bilduko dira Azpeitian Euskal Herriko Abesbatzen elkarte osatzen duten ehun eta larogeitamazazpi abesbetetako ordezkariak. Baziren bost urte elkarte honen bazkideen arteko harreman zuzenik ez zegoela. Biltzar honetan, ordea, hirurehun ordezkari inguruk hartuko du parte. Helburuen artean, Euskal Herri mailako elkarte sortzea legoke bertsolari edo idazlearen antzera. / 23

Salhaketa



Salhaketa presoen aldeko elkarteak joan den urtean Basauriko presoek bizi izan duten egoeraren laburpen txostena plazaratu zuen atzo prentsaurrekoan. Gauza positiboak egon direla ukatzen ez badu ere, elkarte honek sakoneko arazoak konpontzeke daudela eta zenbait arazo gero eta errotuagoak daudela salatu zuen. / 10

Asier Sanchez



Gerraren Aurkako Euskal Batzordeak emandako datuen arabera hogeiren bat euskal herritarrek ihes egin dute Espainiako soldadutzatik. Batzordeak adierazi duenez «hiru Golkora joan beharrekoak ziren». Hauetariko bat Asier Sanchez dugu, Turkia-rantz abiatu beharrekoa. Berarekin lotu dugun elkarrizketan bere egoeraren berri ematen digu. / 18

Frantziako PC



Frantziako Alderdi Komunistak (PCF) dei bat plazaratu du gaurko, jendea gerraren aurka mobiliza dadin. Georges Marchais-en alderdia bakarrik geratu da Frantziaren gerraren aurkako aldarrikapenari eusten. «Amerikarrek, hasieratik diplomaziaren urratsak baztertuz, nahitanahiez gerrara bultzatu gaituzte», adierazi dute PCFkoek egunotan. / 14

J. San Martin: «Ez da erdararik baztertu behar denok euskaraz egiteko bitartekoak jarri baizik»


Juan San Martin, Arartekoa, erdara ere maite duen euskaltzalea

JOSEBA AYARZA / GASTEIZ

Arartekoaren erakundea ezezaguna izan daiteke askorentzat, baina gehiagorentzat ezezagunagoa da nonbait Juan San Martin Arartekoak literaturgile eta euskaltzale moduan egiten duen eta burututako lana: 1958. urtean ikastolen sortzailetarikoa, lehendabiziko Alfabetatze Kanpainaren bultzatzaile Rikardo Arregi eta Mikel Lasarekin batera, euskaltzain urgazlea eta «Egan» aldizkariaren zuzendari ohia, besteak beste. Zazpi liburu euskaraz (ipuinak, poemak, saiakerak, biografiak...), beste hiru elebitako eta hainbat artikulu, literatur kritika eta hitzurre ere idatzi dituen Juan San Martinek «hizkuntza guztietako errespetoa» defendatzen du eta, euskararen kasuan, «ez da erdararik baztertu behar, baizik eta bitartekoak jarri mundu guztiak euskaraz jakiteko», baieztatzen du.

Administrazioa eta herritarren artean bitartekari lana duen eibartar adindu eta abegikor honek «librepentsalaritzat» jotzen du bere burua eta ez du ez aberrietan ez ideologietan sinesten. «Norbera unibertsala da, unibertsua norbera jaio den lekuan hasten den neurrian», esaten du. Horregatik, euskaltzale izateaz gain, erdara ere maite du San Martinek, «neure ikasketak erderaz egin eta lehenengo liburua erderaz ere irakurri bait nituen».

Aspaldi ez dela, Bernardo Atxagak egindako hitzaldi ba-



tean euskara suspertzeak ezin ekar zezakeela erdera baztertea zioen. Eritzi honekin bat bide dator Arartekoa. Are gehiago, «gu inteligenteak bagina euskarak aurrera egin lezake, bere historia guztian eduki

erantzuten dio. «Esate baterako, ertzainek norbait gerarazi eta honek ertzainak salatu euskaraz ez zekitelako. Guk barne sailera jo eta ertzainek euskaraz ikasteko bitartekoak ematen diren jakin behar dugu. Gero, ertzainek ikasten duten ala ez beste problema bat da. Guk ezin ditugu ertzainak euskaraz ikastera behartu, haiek ikasteko modua dagoela ziurtatu baizik».

Alderantzizkoak ere gertatu omen dira, Juan San Martinek dioenez. Adibidez, elebakarra den herri batean udal osoko bilkura euskara hutsean egin eta, itzultzaile ezean, norbait kexatu ulertzen ez duelako. Halere, honelakoak gutxiagotan gertatzen omen dira.

SOSLAIA

«Arrazoia herritarra izaten du»

Juan San Martin Eibarren jaio zen 1922. urtean. Ideologia sozialistako familia euskaltzale batean sortu zen. Agian horregatik, aurreko gobernuo alderdi jeltzale eta sozialistaren oneritiz izendatu zuten Ararteko. Bi urteko lanaren ikuspegi orokorra egitean, erakunde eta herritarren arteko auzietan, arrazoia gehienetan bigarrenak izaten dutela adierazten du. Izan ere, aitortzen duenez, «Administrazioak gaizki funtzionatzen du».

LERRU GUTXITAN

ETA BIHAR

Poliziburuak bota zuen herriko futbol taldeko lehendakaria

Gure inguruetan futbol taldeko lehendakariak besteak botatzen badituzte, Errumanian ez da horrelakorik gertatzen. Hala dirudi, behintzat, Braila herrian gertaturikoa ikusita. Bertako futbol taldeko emaitzak «pobreak» zirela eta, Grigore Constantinescu herriko poliziburuak bere kexak agertu zituen publikoki eta lehendakari aldatzea eskatu. Doru Ciochea lehendakari ohiak, ordea, iradokizuna entzun eta segituan aurkeztu zuen bere dimisioa. Progresu taldeak bukatu berri du lehenengo txanda eta Errumaniako lehen mailako ekipoen sailkapenean azken postuetan dago.

Preserbagailuen erabilerrako kanpaina Frantzian

HIESari (Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea) kontra egite aldera, preserbagailuak erabiltzeko kanpaina zabalduko da Frantziar estatuan, datorren astelehenean. Halaxe iragarri zuen atzo Marsellen Dominique Carvet Frantziako HIESaren Aurkako Agentziako lehendakariak. Kanpaina honek miloi t' erdi liberako (30 milioi pezeta inguru) aurrekontua dauka eta nonahi publikizatuko da. «Nerekin, emakumeek beren burua babestua sentitzen dute» edota «Ene estraineko festa da» bezalako esaldi eta sloganekin kanpainak herritarren arreta bereganatu nahi du.



GERRA nahi du honek. Eskuartearen Stealth F117A modeloko hegazkin maketa duen hau Roger Harney da. Berak zuzentzen duen enpresak horrelako abioi txikiak egiten ditu, eta beraxek esaten duenez «salmentak izugarri handitu dira 'Desertuko Ekaitza' gerra operazioa hasi denez geroztik». Buru belarri ari dira lanean eta Stealth ez ezik, F18, F4, Strike Eagle edota F16 Falcon-ak ere ba omen dakite egiten.

'Pareak bai' elkarrizketan euskara eta Bilbo

Iganderoko 'Pareak bai' sailak euskarak Bilbon duen eta izan zezakeen egoeraren berri plazaratuko du. Edorta Jimenezek gidaturiko elkarrizketan, Koldo Tapia kultur zuztatzailak eta Joseba Sancho euskara irakasleak, ea Bilbon nola zuzpertz eta dinamizatu daitekeen euskara aztertuko dute. Eskuin zein Ezkerraldean zer nolako hizkuntz plangintzak egin daitezkeen ere azalduko dituzte bi euskaltzale hauek.

APIKA
INFORMATIKA

ADIZU: APIKA, GESTIOGINTZAN MAISU

DONOSTIA
Ametzagaña 19, b'shea. TI. (943)
274711 - 283399.
Fax (943) 274600
BILBO
Begonalde 9-1. TI. (94) 4467684.
Fax (94) 446 76 85

BEHAR DUZUNA, IZATEZ ETA NEURRIZ, INFORMATIKA BERRIZ